

IRAKURMEN-PROBA

1. testua

Elkarrizketa baten sarrera irakurriko duzu. Ondoren, elkarrizketaren galderak irakurriko dituzu alde batetik, eta galderen erantzunak bestetik.

Egitekoa

Elkarrizketaren galdera bakoitza dagokion erantzunarekin lotu behar duzu, adibidean egiten den bezala. Bi erantzun sobera daude. 0 adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

Erantzun zuzen bakoitzeko puntu bat lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Emakume kartagileak

Elkarrizketaren sarrera:

Iragan urtean 150 urte bete ziren Heraclio Fournierrek Gasteizko Plaza Berrian lehen inprenta zabaldu zuenetik. Urteurrenaren harira, urte luzez enpresako protagonista izan direnak omendu nahi izan dituzte: emakume kartagileak. Emakume horien historiari buruzko liburu bat idatzi du Aritza Saenz del Castillo ikertzaileak (Gasteiz, 1980).

Elkarrizketaren galderak:

0.- Zer funtzio zeukaten emakumeek karta-lantegian?

1.- Emakume langileen aristokrazia gisa definitu dituzu emakume kartagileak. Nolako bizi-baldintzak zituzten?

2.- Borrokaren bat eraman zuten aurrera?

3.- Emakume haiek lan-esparruan egin zuten bidea aztertzeak harreman sozialak aztertzeak aukera ematen duela diozu. Zer dela-eta?

4.- Garai hartan ez zegoen ondo ikusita emakumeek etxetik kanpora lan egitea. Zer dela-eta erabaki zuen Heraclio Fournier enpresak emakumeak kontratatzen hastea?

5.- Ahaleginik egin zuten emakumeen eta gizonen soldatak berdintzeko?

6.- Zer dela-eta da garrantzitsua gaur egun emakume haien historia kontatzea?

Jone Arruabarrena
Berria 2019/12/19
Probarako moldatuta

1. testua

Elkarrizketaren erantzunak:

a. Alde batetik, Gasteizko gizarteak iritzi hobea zuen emakume horien inguruan, beste gauza batzuetan lan egiten zuten emakumeen inguruan baino. Beste alde batetik, gainerako emakumeek baino soldata handiagoa zeukaten. Adibidez, oihalgintzan edo neskame lan egiten zutenek soldata eta lan-baldintza eskasagoak zituzten.

b. *Heraclio Fournier fabrikako langile nagusiak ziren, eta prozesu guztia beraiek egiten zuten. Kartoiak prestatu eta garbitu, makinetan sartzeko pleguak alde batetik bestera eraman, eta, behin inprimatuta zeudenean ere, haiek moztu eta berrikusten zituzten.*

c. Bi hipotesi nabarmen daude: batetik, uste zen emakumezkoek eskuekin abilezia handiagoa zeukatela kartak manipulatzeko. Eta, bestetik, enpresari errentagarriagoa zitzaien gutxiago kobratuko zuten langileak kontratatzea.

d. Gasteizko memorian jasota zegoen, baina ez du aitorpen ofizialik eduki orain arte. Emakumeen historia beti izan da bigarren mailakoa, eta, gizarteak izan duen bilakaera ulertzeko, ezinbestekoa da kontuan hartzea.

e. Ez. Lanean hasi aurretik ez zuten prestakuntza berezirik egiten. Lanean bertan trebatzen ziren lankideen eta arduradunen laguntzarekin. Hala ere, berriak lan errazenetan hasten ziren.

f. Karten produkziarako gauzatzen zituzten lanei *emakumeen ofizio osagarriak* deitzen zitzairen. Hau da, bigarren mailako lan batzuk ziren, eta horrek ere soldatan eragina zeukan. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan langile-kontzientzia eta kontzientzia feminista garatu zuten, eta beraien lanari balio handiagoa emateko eta soldata handiagoa jasotzeko eskatzen hasi ziren.

g. Industria haren bilakaerak oso argi islatzen du emakumeek izandako prozesua eta nolakoak izan diren genero-arauak. Argi ikusten da emakumezkoek jada ez dutela beraien bizitza mugatzen etxeko eta familiako esparrura, eta, horren ondorioz, bestelako harremanak sortzen dira.

h. XX. mende-hasieran, zakuak egiten zituzten emakumeek baldintza hobek eskatu zituzten behin baino gehiagotan, eta Fournierreko emakume batzuek elkartasuna agertu zieten, baina ez denek. Horrez gain, ez dugu mobilizazio berezirik aurkitu 1976ko martxoaren 3ko gertakarietara arte.

i. Bai, beren egitekoa funtsezkoa izan zela karten kalitate-maila gorena mantentzeko. Denborarekin, administrari eta ilustratzaile lanetan ez ezik, laborategi kimikoetan, fotokonposizioan eta inprimaketa makinetan ere aritu ziren.

2. testua

Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena, adibidean egin den bezala. 0 galdera adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

*Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu bat** lortuko duzu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

Gris

PORLANEZKO aro grisean bizi gara. Naturak ez du garrantzirik, zuhaitzak, baratzeak eta lorategiak dekoraziozko elementutzat hartzen dira, betetzen duten funtzioez haratago. Ez dute ezertarako balio hiri handietako parkeetako aurpegi polita erakusteko ez bada. Mantendu beharrean, hobe da porlanezko geruza sendo bat jartzea gainean eta jende guztiak ulertuko du hirian gaudela, hirian asfalto gainean ibili behar dugula, grisa eta beltzak direla gure kolore printzipalenak. Berdea kanpoan dago, hirietatik at, mendietako ikurrak dira kolore horiek.

Auzunean horrelako erabakia hartu dute auzunean bizi ez diren politikariek. Plaza bat zegoen auzotegian, aspaldi batean auzolanean eraiki genuena, auzotarren artean; toki desatsegina zena jolasteko eta egoteko gune bilakatzeko ametsa izan zen hura. Zuhaitzak landatu ziren eta hura bertan elkartzeko toki bihurtu zen. Urteetan izan da plaza hori hor. Gabonetan Olentzerori kantatzen zion auzokide-talde batek, eta gero bertan erretzen zen paperez beteriko Olentzero faltsua. Bertan Gabonetako kantak eta txokolatea banatzen ziren giro bikainean.

Duela aste batzuk bulldozerrak eta bestelako makinaria ekarri zituzten eta dena altxatzen hasi ziren. Lehendik zegoena berrizatzeko, ederrago bat jartzeko izango zelakoan nengoen. Bai zera! Zuhaitzak moztu dituzte eta Bilboko baldosez bete dute zorua. Orain dena da bat, grisa, uniformea, hiritarra, hotza. Ez dakit gerora lorategi txikiren bat landatuko ote duten, zuhaixkaren bat jarriko ote duten, baina oraingo itxura negargarria da.

Ez dago zertan dena suntsitu. Naturaren espazioari beti eman ahal zaio forma bat, abstrakzioa egin barik. Presaka kentzen da erabat adaptaturik dagoena zirkulaziorako espazio berri bat sortzeko, eta horretarako, berdeguneak, zuhaitzak eta abar kentzen dira. Orain ez dago landaredirik, inguruko txoriek alde egingo dute, bertako eraikinak handiagoak eta deshumanizatuagoak irudituko zaizkigu, eta jolasteko eta egoteko zen plazatxo hura espaloi handi bihurturik geratuko zaigu. Gris.

Juanra Madariaga.

Deia 2020.12 29

Probarako moldatuta

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna:

Adib.: 0.- Zertarako balio dute lorategiek hiri handietan, artikulugilearen iritziz?

- a. *Hirian naturari lekua egiteko.*
- b. *Apaintzeko baino ez.*
- c. *Ez dute ezertarako balio.*

- 1. Artikulugilearen iritziz, hirian gaudela ohartzen gara...**
 - a. Lorategiak zainduta ikusten ditugunean.
 - b. Kolore grisak inguratzen dituenen berdeguneak.
 - c. Porlana zapaltzen dugunean.

- 2. Zer dio Madariagak auzunean hartu berri den erabaki bati buruz?**
 - a. Aspaldi bizi ziren auzokideen ideia dela.
 - b. Auzolanean lortu dutela aurrera ateratzea.
 - c. Auzotik kanpo bizi direnek hartu dutela.

- 3. Nolako ametsa izan zuten auzokideek?**
 - a. Auzotik kanpoko politikariak erakarri nahi zituzten.
 - b. Bizilagunek partekatzeko gune bat sortu nahi izan zuten.
 - c. Gune desatsegin hura beste auzoetako bizilagunentzat txukundu nahi izan zuten.

- 4. Zer gertatzen zen plazan Gabonetan?**
 - a. Olentzerok plazan bildutako auzokideen aurrean abesten zuen.
 - b. Olentzerok jantzitako auzokideak sua pizten zuen.
 - c. Zenbait auzokidek abestu egiten zuten.

- 5. Zer pentsatu zuen Madariagak buldozerrak plazara sartu zirenean?**
 - a. Buldozerraz gain, makineria gehiago beharko zutela plaza altxatzeko.
 - b. Lanak plaza hobetzeko eta ederragotzeko izango zirela.
 - c. Baldosen ordeztasun lorategia eta zuhaixkak jarriko zituztela.

- 6. Zer dio Madariagak natura suntsitzeari buruz?**
 - a. Badaudela bestelako irtenbideak espazioa egokitzeko, dagoena suntsitu gabe.
 - b. Hainbatetan natura suntsitu behar dela espazio natural hobeak egiteko.
 - c. Zirkulaziorako espazioak egiteko nahitaez suntsitu behar dela aurretik dagoena.

- 7. Zein da Madariagaren ustea?**
 - a. Eraikin berriak handiagoak izango direla.
 - b. Herritarrak kaltetuta aterako direla.
 - c. Egingo duten espaloi zabala erabili beharko dutela jolasteko.

--3. testua--

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Bi esaldi sobera daude. 0 adibidea da. Idatzi letra dagokion laukian.

** Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu bat** lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

Arrano bikote batek habia egin du Urdaibain

Urdaibai Bird Center-ek ohartarazi duenez, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako biodibertsitaterako gertaera garrantzitsua da arrano arrantzaleen habia. Izan ere,0..... espezie horretako bikote batek, arrautzak jarri eta txitak jaiotzeko asmoz. Habia dotorea eta zabala egin dute, arrano arrantzaleetan ohikoa izaten den bezala.

Urdaibai Bird Center-ekoek diote orain arte ikusi gabeko gertaera dela, urteotan nazioartean eta Bizkaian bertan egindako lanaren emaitza.1..... dira bikotearen kideak, beraz, Europa mendebaldeko natura babesteko hainbat proiektuk arretaz segituko dute2.....

Adituek espero dute Landak arrautzak jartzea eta txitak jaiotzea, baina3..... Arazoetako bat, hain zuzen ere, habiaren tamaina da, handi-handia delako eta begi bistan dagoelako, ezkutatu gabe. Beste hegazti batzuek hobeto gordetzen dituzte euren habiak eta txitak, harraparien beldur,4....., ekosistemako harrapari handienetako bat delako arrano arrantzalea.

Hortaz, Urdaibai Bird Center-ek dei egin die han inguruan ibiltzen diren turista, txakur jabe eta halakoei, ez hurbiltzeko habia dagoen lekura. Jendea sumatuz gero, arranoak ikaratu litezke,5.....

Naturaren arriskuek eta jendearen portaerak ez badakarte ezusteko txarrik, adituek uste dute aurrean bertan jaio litezkeela arrano arrantzaleen lehenengo txitak. Urte askoan6....., espeziea berreskuratzeko programaren arrakastaren erakusgarri.

Zientzialarientzat, naturazaleentzat zein jende guztiarentzat arrano arrantzalearen habiak eragin lezakeen interesa gogoan hartuta, Urdaibai Bird Center-ek aukera ematen du Internet bidez habia zuzenean ikusteko, bideoan. Apirilaren 8an piztu zuten kamera, eta harrezkero7..... arranoek egiten dutena.

Bizkaie! 2021-04-09

Probarako moldatua. Jatorrizkoa bizkaieraz

3. testua

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna:

Adib.: 0.- b. lehenengo aldiz hartu du Urdaibai bizilekutzat

- a. natura basatian inoiz ezin da aurreikusi zer gertatuko den
- b. lehenengo aldiz hartu du Urdaibai bizilekutzat**
- c. baina arrano arrantzaleak ez du horrelakorik behar
- d. zientzialariak ados baitaude egindako segimenduekin
- e. eta halakoetan habia bertan behera uzten dute
- f. egunean 24 orduz ikus daiteke munduko edozein txokotatik
- g. Urdaibaiko habian gertatzen den guztia
- h. Kantauri itsasoaren ertzean jaiotako lehenengoak lirateke
- i. Landa izeneko arrano eme frantziarra eta Roy izeneko arra
- j. nahiz eta arrano emea denbora gehiago bizi den arra baino